

4 errealitate

erronka

1

Deba Garaian etorkizuna eraikitzen

**almen
san frantzisko xabier
san viator
umezaintza**

zatoz ezagutzera

**MATRIKULA
ZABALIK
otsailaren
17tik 28ra arte**

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza
- etengabeko hobekuntzako konpromezua
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak



HEZIBIDE

Hezibide bailarari hezkuntz
egitura kooperatibo aberatsa
ematen dion elkartea



PARTAIDE
Ikastolak



Egunkaririk irakurtzeko ohiturarik baduzu?

Aintzane Aizpurua
(Langilea)

Bai, egunero irakurtzen dut egunkaria. Kronika lokala irakurtzea gustatzen zait eta gero orokorrean dena irakurtzen dut.

Aldizkariak irakurtzeko ez daukat ohiturarik.



Sabina Igartua
(Jubilatua)

Aretxagazeta eta *El Diario Vasco* irakurtzen ditut. Herriko berriez informatzea gustatzen zait.

Honez gain, ez dut gehi- gi irakurtzen, denborarik ere ez dut eta.



Jabier Baskaran
(Langilea)


Euskaldunon Egunkaria leitzen dut. Bestela, eskolan *Diario* eta *Egin* ere hartzen direnez hauek ere irakurtzen ditut. Aldizkariak, *Elhuyarren zientzia eta teknika* eta *Muy interesante* gaineratik begiratzen ditut.



Jose Gallego
(Langilea)

Egunero irakurtzen dut egunkaria, *Diario Vasco* eta *Marca*. Kirol arloa irakurtzen dut, bestea ez.

Aldizkariak, berriz, ez ditut irakurtzen.



eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Eskerrak emanez

Nahiz eta karnabal domeka ospatu zenetik hamar egun pasa, ezin izan dugu ahaztuztat eman han suertatutakoa.

500 sudur gorriekin kaleratu gitzen, hasiera baten beldur pixka bateaz. Ezan ordubete pasauko, sudur barik geratu gitzela. Izugarria izan zen. Emaitza: 53.110 pezeta ARATZen kontura zuzenean joan zirenak.

Ausartenek esaten zuten 1.000 sudurrekin kaleratu behar gitzela eta beharbada arrazoa zuten, Aretxabaletako moduko herritarrak ezagutuz.

Ea, beste egun batean 1.000 sudurrekin kaleratzen garen. Eskerrikasko

Surgorrixek.



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Zuzenketa:

Aurreko aleko kontu zaharretako atalean Mendiolako Santa Ageda mutilen argazkia atera genuen. Santa Ageda mutil batzuen izena falta zen bertan eta hauexek dira:

Leonardo Madinabeitia, Jose Mari Jausoro, Luziano Arenaza eta Maurizio Iturbe.



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Otsailaren 14an egin zen Aretxagazetako batzar orokorra

Aretxagazetako batzar orokorra

Aretxagazetak urteko batzar orokorra egin zuen joan den otsailaren 14an. Bi urte betetzen zituzten batzordekideen aldaketa egin zen bertan. Alde batetik, irtendakoak: Josu Urkia, Miren Eraña, Imanol Aginagalde eta Arantxa Abasolo dira. Sartu direnak bestalde: Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Elkorobarrutia eta Alberto Izagirre.

Naiara Arrese, Aretxagazetako diruzainak, Aretxagazetaren iazko egoera nola gelditu zen eta aurtengo aurrekontuen berri eman zuen; iazko balantzea positiboa izan zelarik.

Aurtengo urteko aurrekontuari begira, aldaketa nabarmenenak aipatu zituen: "alea koloretan aterata irteerak igo egin dira eta hau da aurrekontuan ematen den aldaketa

nabarmenena". Aretxagazetaren aurrekontua sei milioi eta erdi pezetako zifretan mugitzen zela ere azaldu zuen.

Dirukontuen berri eman ondoren zuzendariaren txanda etorri zen. Josu Urkiak, azken bi urte hauetan landutakoaren berri eman zuen: "kanpoaldeko itxura asko hobetu dugu kolorea sartuta. Orain barrualdekoan zentratu beharko da". Alde horretatik, kolaboratzaileen lana indartzearena aipatzen zuen.

Honez gain, herriko pertsona batzuk Aretxabaletako telebista sortzearen ideia aurreratu zuen. Aretxagazetak izango du zeresanik gai honen inguruan. Baina horren inguruko berri gehiago hurrengo aletan izango duzue.

Santa Ageda mutilen kohete jaurtiketen inguruko komunikatua

HB, EA eta EAJ-PNVko alderdi politikoen ordezkariekin osatutako Gobernu Batzordeak komunikatua aurkeztu du. Komunikatu horretan otsailaren 9tik 10era bitarteko gauean izandako ekintzak salatzen dira.

Bertan adierazten da, gure herriarentzat hainbeste tradizio eta esanahi duen Santa Ageda mutilen ospakizunetako jai eta dibertsio giroa ulertzen eta bultzatzen dela, baina horrek ez duela esan nahi, horrelako ohi-turak bultzatzen dituzten herriarrek gauean koheteekin sortutako zaratak jasan behar dituztenik.

Guzti honegatik Gobernu Batzordeak eskatzen du, honelako ekintzak burutzea erabaki dutenei horretaz hausnar dezatela eta bide horretatik jarraitzeari uko egin diezaiotela.

Bukatzeko, komunikatuak jakinarazten du ekintza hauek erabilitako koheteak ez zirela Udal honek emandakoak, ezta Udalak finantziatuak ere.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MERCATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

Bost pertsona edo taldek jaso zuten "Aretxabaleta saria 96"

Joan den zapatuan banatu ziren "Aretxabaleta 96" sariak. Guztira bost pertsona/talde izan ziren sari hori eskuratu zutenak: Iñurrategi anaiak Kangchenjunda eta Shisha Pangmara egindako igoerengatik; Nagusien akordeoi orkestra, Italiako Castelfidardo Nazioarteko Akordeoi Jaialdian lehen saria eskuratzeagatik, Gaztetxoan Akordeoi Orkestra, Irun Hiria Akordeoi Txapelketako lehen saria eskuratzeagatik, Joseba Larrinaga, Atlantako joku paraolimpikoetan lortutako zilarrezko dominagatik eta UDA elkartea, bere 50. urteurrenagatik.

1996. urtea ekintzaz, ospakizunez eta garaipenez betetako urtea izan dela esan beharra dago atxabaltarrontzat, sarri izaten ez diren horietakoa.

Sarituak, udaletxearen eta Andra

Mari parrokiaren brontzezko irudiaz gain, beste plaka bat ere jaso zuten. Bertan eskerrak ematen zitzaizkien iazko urtean zehar egindako lanagatik, lortutako garaipenengatik eta Aretxabaletaren izena kanpora zabaltzeagatik. Sariak banatzen Udaletxeko zinegotziak izan genituen.

Aurtengoa, Udalak horrelako sari banaketa bat egiten duen lehenengo aldia da. Hemendik aurrera urtero errepikatzea nahi da, nahiz eta agian urteren batean sari hori jasoko duen inor ez egon.

Garbi dago, atxabaltar batzuentzat iazko urtea arrakastaz beteriko urtea izan dela. Arrakasta hauek, sakrifizioan eta lan konstantearen emaitza izan dira. Arlo honetan iazkoa moduko urteak beste asko izan daitezela eskatu beharko da.

Izen abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera dago udaletxean

Orain urte batzuk izen abizenak euskal grafiaz idazteko aukera onartu zen. Aretxabaletako udaletxeak ere eskaintzen du aukera hori, hau da, norberaren izen-abizenak erregistro zibilean euskal grafiara aldatzearena. Badago, dena den, desberdintasunik: 77. urtea baino lehenago jaiotakoen kasuan izena udaletxean bertan aldatu daiteke. 77. urtetik geroztik jaiotako kasuan, berriz, konplexuagoa da tramitazioa, kasu honetan Bergaran onartzen baita aldaketa. Abizenen kasuan, oraindik, gehiago luzatzen da tramitazioa. Lehenik Bergarara bialtzen da eskaera eta hemendik Madrilera. Dagoeneko badira euren izen abizenak euskal grafiara aldatu dituzten atxabaltarrak. Udaletxeko idazkaria den Xabier Mendizabalek adierazi digunez, gehienak gazteak izan dira. Gainera, eskaera egiten duen pertsonaz gain familia guztiari ere aldatu egiten zaio. Norbere izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi izanez gero, NAN zenbakia, jaiotza agiria eta erroldatze orria aurkeztu behar dira udaletxean. Aldaketa zerbitzua dohainik da.



Bixente Etxeandia, Luis Mari Elkorobarrutia, Agurtzane Iñurrategi, Juan Jose Orobengoa eta Joseba Larrinaga oroigarriekin

Ofindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

**Bazkari
eta
afariak**

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

10. Korrika aurtengoa

Euskal Herria



korrika!

1997ko martxoaren 14tik 23ra
ARANTZAZU-BILBO

Arantzazun hasiko da aurten Korrika martxoaren 14an eta 23an Bilbon bukatuko da. Bederatzi egunez euskararen mezua zabalduko du Euskal Herri osoan zehar.

Ibilbidearen inguruan hainbat aldaketa egin ondoren, azkenik

gure herritik ere pasatuko da. Martxoaren 17an arratsaldeko 5ak inguruan Arrasate aldetik helduko zaigu.

Korrikako aurtengo ekitaldian, Luis Billasante, Arantzazuko frailea, eta Euskaltzainburu ohia omendua izango da, eta baita euskararen alde lan egiten duten herri mugimenduetako jendea ere.

Korrika antolatzeko sortutako herriko batzordea martizenero biltzen da arratsaldeko 7etan Lora mendiko lokalean. Norbaitek interesa izanez gero batzarrera agertzea eskatzen da.

Kamioilarien grebak guztioi eragin digu

Kamioilariak otsailaren 6az geroztik greba ekiteari erabaki zutenetik grebaren ondorioak guztioi igarri ditugu.

Herritarrok orokorrean erregaian eta elikagaietan igarri dugu grebaren arrastroa. Erregaiarena dagoeneko konponduta egon arren, dendetan, haundietan batez ere, produktu asko falta dira, esnea eta esnekiak, patatak...

Industrian ere nabari da hutsunea, aipatzekoa da arlo honetan, Ederlanera helikopteroek materialarekin egin dituzten joan-etorriak.

Otsailaren 14an Aretxagazeta bisitatzen izan genituen Almeneko 4. mailako ikasleak. 9/10 urtetako 30 bat neska mutiko etorri ziren guztira, Mari Karmen Guridi anderoinoarekin. Aretxagazetako historia, bilakaera eta Aretxagazeta zelan egiten den ere ikusi zuten. Orain lantxo bat egin beharko dute ikusitakoaren eta jasotakoaren inguruan.



TABERNA-BERRI JATETXEA


Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA



URBALTZ TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

Karmelo Ibabe:

“Greba mugagabea da eta sindikatuek lanean hasi gaitzkeela esaten duten arte jarraituko dugu”

Karmelo, gaurkoan 15 egun betetzen dira kamioilariok greba hasi zenutenetik. Zer eskatzen duzue?


Greba hau orain bost urtetatik dator eta orduan ere gauza bera eskatzen zen, baina ez zen ezer lortu. Eskaera desberdinak egiten dizkiogu gobernuari. Alde batetik, garrantzitsuena jubilazioarena, hau da, 55 urtekin borondatezko jubilazioa hartu ahal izatea eta 60 urtekin jubilazioa. Lanbidearekin zerikusia duten gaixotasunak onartzea ere eskatzen dugu, bizkarreko arazoak izaten dira normalean. Txartelen kontrol zehatzagoa, garraioaren modernizazioa eta gasoil profesionalaren prezioa jeistea, e.a.

Lehenengo negoziazioak egin dira gobernuaz. Luzerako dela uste duzu?

Gure arazoa Ministeritza batekin baino gehiagorekin egon behar duguna da. Garapenerako Ministeritzaz tarifen inguruan. Jubilazio eta gaixotasunen kasuan, Lan eta Gizarte Ministeritzaz. Industria eta Energia Ministeritzaz gasoil profesionalaren

Kamioilarien greba dela eta herritar guztiok igarri ditugu honen eraginak, bai erregaia dela, janariak...

Aretxabaletan ere baditugu kamioilariak eta hauek ere greba horretako partaide dira. Karmelo Ibabek esaterako, 22 urtekin hartu zuen lehenengo kamioia. Sevilla, Cordoba, Murtzia, Valentzia eta azken 9 urte hauetan Bartzelonara ibiltzen da. Astean bi, hiru bidaiak egiten ditu bertara.



inguruan... Negoziazioa luzerako izan daiteke, eskaera batzuk lortu arte behintzat ez dut uste sindikatuek atzera egingo dutenik. Mugagabeko greba da eta sindikatuek lanean hasi gaitzkeela esaten duten arte jarraituko dugu.

Zein baldintzatan bizi dira gaur egungo

kamioilariak?

Erlatiboa da hori. Gauza bat argi dago. Kamioilari profesionalon kasuan, % 80ak bere lanbidea odolean darama. Horregatik enpresak egoera horretaz aprobetxatzen dira etekinik haundiena ateratzeko. Nik esaterako autonomo lan egiten dut,

enpresa batekin lan finko bat daukat baina hauek bidaiaren portea bakarrik ordaintzen didate. Kamioiaren gastu guztiak nire esku daude, gasoila, mantentimendua... Kamioiagatik fiantza haundia ordaindu behar izaten dugu eta kamioaren mantentimendu guztia ere bai.

Kamioiaren mantentimendua aipatu duzu...

Bai, oso garestia da. Munduan ez dago kamioia baino makina garestiagorik. Kamioi batek zazpi urte irauten ditu, eta urte horietan mantentimendu haundia behar du, gasoila, erruedak... Milioi bat inguru km egiten ditu kamioi batek motorra aldatu barik.

Europarekin konparatuz, zein egoera bizi dute hemengo kamioilariak?

Europar egoera desberdina da. Espainian autonomo asko daude eta hemengo kasua Italian bakarrik ematen da. Frantzia eta beste estatu batzutan esaterako, enpresetako txoferrak dira gehienak. Kamioiak enpresarenak dira eta txoferrak ez du ez letra ez kamioiaren mantentimendua ordaintzen.

**BASTER-ALDE
JATETXEA**



**SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN**

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK**



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Matikua
jartetxea

Bertako mortzilak eta txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita

Azatza auzoa
ARETXABALETA

Desagertutako ermittak (2)

Gaur egun gure herrian ditugun hiru ermiten inguruan berba egiten nizuen aurreko alean, baina egia esan, aspaldi batean gehiago ere baziren. Azkar bada ere, gure arbasoek ezagutu zituztenak aipatuko dizkizuet oraingo honetan. Idatziko aipamen zaharrena, lehen esan bezala, XVI. mendekoa da; 1556. urtekoa konkretuki, eta aipatzen direnak ondoko hauek dira:

Aretxabaletan herrian:


Na Sra. eta S. Martin (gaur S. Martin baserria). Ermita hau 1490. urteko dokumentu batetan agertzen da "ermitta juradera" bezala.

Oro auzoan: S. Martin eta S. Juan (gaur baserri izenak). S. Juan ermittako bataio ponteak Gatzagako Parrokian dago. Horregatik, bertako parroko zen On D. Bergaretxek zera esaten zuen: "Tengo una pila bautismal de Oro". Jendea harrিতuta. Nola ez!

Bedoñan: Iturriagako Santi-kurtz. Koruban kokaturikoa. Oraindik belarrak kolore ilunagoa du. 1733an bota eta bere tokian gurutze bat jaso zuten.

Areatzan: lehen aipaturiko S. Juan ermita.

Aozaratzan: S. Antonio (S. Anton). Bere kokapena urpean dago. Aspaldi desagertua, XVIII. mendean. Tokiari, auzokoei "jardina" esaten zioten. Bertako irudia elizan gorde zen eta gaur egun, konpondu



Aretxabaletan desagertutako ermittak

ondoren, Donostiako Museoa dago. S. Anton egunean (urtarrilak 17) jai handia ospatzen zen (abe-reen zaindaritzat hartzen baita) predikadore eta guzti. Urteak joan eta urteak etorri, predikadoreari ematen zizkioten 20 errealek gutxi iruditu eta jasoera eskatu zuen. Bildu ziren auzokoak eta pixkat pentsatu ondoren, honela erantzun zuen Urtikoko aittajaunak: "20 errielak arte predikau eta gero ixildu deila".

Koruetan: S. Jorge eta Santa Ines. Ermita honetako taila Donostiako Museoa dago. Balio handikoa. Esaten dutenez, ermittako

kanpaiaz, Koruetako Parrokiako kanpaia egina zen.

Galartzan: Lau zeuden. Ascension, Zaloñako S. Pedro, S. Cruz eta S. Adrian. Azken hau Naparrena baserri inguruan.

Interesatuondako, Atxabalta inguruan: S. Antonio, Untzila bidean; Elixabarrin, S. Juan Anteportamlatinan; S. Bernabe, Apotzaga-Etxebarritik Apotzarako bidean; Ugastegiko Santikurtz eta Ergiñako Andra Mari zuri.

Aitor Antxia Leturia

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

Herriko eta inguruko ermittak



Arientzako San Vicente



Sailluente/San Blas



Santutxo



San Antonio/Untzila



San Bernabe/Apotza



**S. Juan Anteportamlatinam
Elixabarrin**



Santikurtz/Ugastei



Andra Mari Zuri/Ergiña

Zer irakurtzen dugu atxabaltarrok?

Gaur egun, telebistak informatzen gaitu inguruan eta atzerrian gertatzen denaz, baina informazio idatziak beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Telebistak baino bezero gutxiago du prentsak, mezua jasotzeko esfortzu eta kontzentrazio haundiagoa suposatzen duelako. Hala ere, influentzia handia du gure artean. Zergatik? Alde batetik, jendea idatzitakoaz fio delako eta bestetik irakurtzerakoan mezua hobeto

barneratzen delako. Gainera, norberak nahi duenean irakurtzeko aukera ematen du eta baita nahi beste alditan ere.

Baina gure herriko kasuan, zein egunkari da irakurriena? zein egunkari irakurtzen dira? Guzti horren inguruan arituko gara ondorengo lerroetan. Honez gain, herrian arrakasta duten aldizkarieng ingurukoak ere aipatuko ditugu labur-labur.

18 egunkari gure artean

18 egunkari desberdin saltzen dira gure herrian. Horien artean, denetarik dutenak: *El Diario Vasco*, *Egin*, *El Mundo*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Deia*, *El Correo*, *El País* eta *ABC*. Lau kirolekoak: *Marca*, *As*, *Mundo Deportivo* eta *Sport*. Ekonomiari buruzko bi, txirindularitzaren inguruko bat eta hiru motorren eta kotxeen ingurukoak.

Egunkari hauetako bakoitzak bere irakurle goi fidela du normalean: objetibotasuna lantzeko modu desberdina du bakoitzak eta irakurleak hori kontutan hartzen du.

Alfredo Meabek bi urte egingo ditu laster egunkariak saltzen. Bere esanetan pertsona bat egunkari bat irakurtzera ohitzen da eta ohiturak aldatzea zaila izaten da.

El Diario Vasco egunkaria da herritarrok gehien erosten duguna. Beste egunkariekin konparatuz alde nabarmena du. Bigarren *Eginek* jarraitzen dio, *El Mundo* dator jarraian eta gainontzekoak, *Deia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *El País*, *El Correo* antzeko salmenta dute. Euren arteko aldea behintzat ez da horren nabarmena.

Aipatzekoa *ABC* ale bakar bat egoten dela salgai Alfredonean.

Kirol gaiekin lotuta *Marca* da gehien saltzen dena, arrakastatsua da. Kirolak gure artean duen garrantzia azpimarratzekoa da.

Asteburuetan irakurle gehiago

Astebukaeretan denbora libre gehiago dagoela eta, irakurtzeko



Egunkari eta aldizkarieng eskaintza zabala dago merkatuan

joera haundiagoa dugu. Horregatik, salmenta kopurua asko igoten da zapatu eta domeketan. Guzti honi gehigarriak gehitzen badizkiogu oraindik eta nabarmenagoa egiten dela dio Alfredok. "Egunkariak gehigarriekin edo promozio berezi batekin datozenean askoz gehiago saltzen dira. Kasu hauetan bidaltzen den egunkari kopurua ere gehitu egiten da.

Astelehena ere egun ona izaten da egunkari saltzaileentzat. Kirolak bazter guztiak mugitzen baititu. "Ondorengo hiru egunetan, martitzen, eguazten eta eguenetan gutxiago saltzen da baina diferentzia ez da horren nabarmena".

Edade batetik aurrerako jendea izaten da egunkari eroslea, 30-35 urtetik gorakoa. Adin horretatik

beherakoek ez dute horrenbeste erosten. Hau logikoa da, familia batean egunkari bat erosten dela kontutan hartzen bada.

Gehien irakurtzen diren arloei dagokienez, jendeak gogoko du herriko kronika, gertuko eta herrian gertatzen dena interesgarria da beti. Honez gain, iritzi artikulak, gutunak, kirolak eta inguruko herrietako albisteak dira irakurrienak. Ez horrenbeste ekonomia alorra eta urruneko gertakizunak.

Aldizkariak gero eta gehiago

Orain urte batzutatik hona asko gehitu da aldizkarieng kopurua eta edozein gairen ingurukoak aurki daitezke gainera. Hori da behintzat Nieves Arana eta Alfredo Meabek esan digutena. Gaur egun 100

aldizkari desberdinetatik gorako eskaintza dago gure herrian.

Nievesek 20 urtetik gora daramatza aldizkariak saltzen. "Hasiera batetik ona, aldizkariaren eskaintza asko igo da. Izugarriko eskaintza zabala dago: motorrak, kotxeak, dekorazioa, gastronomia, informatika, zientzia, osasuna, moda..."

Batzuk asterokoak dira, hilero-koa beste batzuk. Azken hauek landuagoak izaten dira, kalitate haundikoak. Horietako batzuk arrakasta handia dute gainera: adibidez, *Quo* eta *Muy interesante* aldizkariaren kasuak. "Zezer

garestiagoak izan arren jendearen gustokoak dira".

Herritarren joerak

Gaiaren arabera, aldizkari bakoitza irakurle konkretu bati zuzentzen zaio. Gizonezkoek kirol-letakoak, kotxe eta motorren inguru-koak... atsegin dituzte. Emakumezkoak, dekorazioaren inguru-koak, kotileodunak... eta badira beste batzuk alde bietara saltzen direnak: osasuna eta naturaren inguru-koak esaterako.

Arlo honetan, Alfredok gehitzen du, osasunak ere kezkatzen dituela gaur egungo

atxabaltarrak. "Osasuna eta gorputza zaintzearen inguruko aldizkariak nabarmen gora egin dute salmentan. Hauez gain, dekorazio-koak, naturaren inguru-koak, kotileozkoak eta gurutzegramen aldizkariak dira gehien saltzen direnak.

Azkenaldian ordenadore eta informatika lantzen dituzten aldizkariaren eskaintza asko gehitu bada ere, oraindik ez dira asko ezagutzen.

Horrelako eskaintza zabala edukita asko dira saldu ez eta bueltatu beharreko aldizkariak. Egunkariekin ere berdin gertatzen da, saltzen ez direnak egun berean bueltatzen dira.

Ba zenekien...?

- 18 egunkari desberdin saltzen dira gure herrian.
- *El Diario Vasco* da irakurriena, Egin ondoren.
- *ABC* bakar bat ere egoten da salgai.
- *Euskaldunon Egunkariak* esparru txikia du gure artean baina gorantza egin du.
- Astebukaeretan askoz gehiago irakurtzen da.
- Egunkariak gehigarriekin edo promozioen batekin datozenean askoz ere gehiago saltzen dira.
- Herriko kronika, iritzi artikulua eta kirolak dira arlo irakurrienak.
- 100 aldizkari desberdinetatik gorako eskaintza dago gure herrian.
- Hileroko aldizkariak arrakasta handia dute, *Quo* eta *Muy Interesantek* esaterako.
- Gurutzegramen aldizkariak, osasunaren inguru-koak, kotileodunak, naturaren inguru-koak, dekoraziokoak... dira gehien irakurtzen direnak.
- Guzti hauen artean euskarazko prentsak indar txikia du, merkatu bakarra baitu eta alde horretatik gogor lehiatu beharra daukagu.



Euskal prentsa

Egunkari eta prentsaren inguruan berba egin dugu baina ez dugu aipatzen zifrarik, ez baitugu horretarako aukerarik izan. Dana dala, eguneroko prentsak gure artean garrantzi handia duela ikusi daiteke. Zoritxarrez, aipatu-takoetatik gehiengo handi bat gaztelarazkoak dira. Euskarazko prentsak oso indar txikia du. Merkatu bakarra da eta gaztelarazkoak du nagusitasuna. Alde horretatik, euskarazko prentsak gogor lehiatu beharra dauka. Hor daukagu *Euskaldunon Egunkaria*, eguneroko prentsa idatzian. Bere esparrua, oraindik ere, oso txikia da. Badira astekariak, *Argia* kasu. Guzti hauen artean herri aldizkariok betetzen dugun funtzioa garrantzitsua da. Herri aldizkariok esker eskolatu eta euskaraz irakurtzera ohitu barik zeuden askok euskaraz irakurtzea lortu da. Ez da erronka makala.

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



Berrikuntzak

MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



Urteko lehenengo jai garrantzitsuak pasa zaizkigu. Garbi dago, aratuste domekak gero eta indar haundiagoa duela atxabaltarron artean. Horren erakusgarri da egun honetarako herritarrek jartzen duten ilusioa eta gogoia. Giro bikaina izan genuen kalean, eta zeresanik ez, jendetza izugarria bildu zen gurean. Ondorengo argazki sorta horren erakusgarri da. Zuein gozamenerako hor daukatzue pilotxo bat.

“Curro se va al Caribe” 1.go saria


Sariak:

16 urtetik gorakoetan:

- 1.go saria: Curro se va al Caribe
- 2.- Bilarra
- 3.- “Tio vivo”ko zaldiak
- 4.- Ijitana

16 urtetik gorakoetan:

- 1.go saria: Behiak eta esne banatzaileak
- 2.- Lagun waro
- 3.- Kotxe garbitzaileak
- 4.- Marujak



Bilarra 2. saria



“Tio vivo”ko zaldiak 3. saria



Ijitana 4. saria

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



Behiak - gazteetan 1.go saria.



Ortutik ihes egindako txorimaloak kalean.



Erregalu paketeak. Zerez beteak ete daude?



Txin, txin, txin, txin...



Aurtengo Santa Ageda mutilak.

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

MartiW



Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 01 72



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

aratu steak



"CQC" pasatu zuten batzuk.



Umm... horiek bai tarta goxoak.



Holako tamainako botilekin...



Braveheaaaaaart!!!



Kurkulun ere plaia jarri ziguten batzuk.



Lehoiak, india eta mexikana gaztetxoak.

JOSU
HARATEGIA
 Urdaitegia-Gozotegia
 kroasantegia
 Janari prestatuak
 Mitarte, 1 ☎ 77 03 08


ARGI-PLASTIC
 Leihoak egiten dira
 Zigarrola, 1 8. pabiloia
 ARRASATE ☎ 77 11 30

MEMESA S.L.
Industriaren alde
 Santa Kurtz, 25-27
 Tfnoa: 77 11 75
 ARETXABALETA



DrakQueenek ere bisitatu gintuzten.

"Hoy Cruzamos el Debaar"



"Los Bateres"eko azkenengo kaka mokorduaren oromenez.



Nondik atera ete dira hauek?

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABAETA

Piraguismoan federatu

Murrukixo M. E.a piraguismo sailean federatuta dauden bazkideen fitxak berrizten ari da. Hori dela eta, aurtengo urterako piraguismo sailean federatzeko interesa duen edozeinek Murrukixoko lokaletik pasa beharko du bere datuak emateko: izen-abizenak, helbidea, jaiotze-data, NAN zenbakia, telefonoa, eta kontu korronte zenbakia. Bestela, Felis Beltran de Herediarekin kontaktuan jarri daiteke lehenbailehen. Murrukixoko bazkide izatea beharrezkoa da federatu ahal izateko.

Abisurik eman ezean, baja eman-go da.



Udaberrirako pala txapelketa

Udaberriarekin batera pala txapelketa jokatu da Aretxabaletan.

Pala txapelketa honetan parte hartzeko atxabaltarra izatea eskatzen da. Partiduak binaka izango dira eta 35 tantutara jokatu dira. Kiroldegian eta Iturrigorri frontoian jokatu dira, zapatu arratsaldetan eta domeka goizetan. Azaldutako hauek eta beste batzuk osatzen dute txapelketa honetako

araudia, guzti horren berri zehatzagoa kiroletxean jaso ahal izango da.

Martxoaren 15etik aurrera jokutzen hasiko da baina bertan parte hartu gura izan ezker alde aurretik eman behar da izena, martxoaren 7a baino lehenago. Kiroldegiko bazkideek, 1000 pezeta bikoteko eta bazkide ez direnek 2000 pezeta ordaindu beharko dute.

Dorletako Ama txirrindulari eskolaren aurkezpena

Otsailaren 22an Dorletako Ama txirrindulari eskolak 1997 denboraldirako txirrindularien aurkezpena egingo du: 1.go eta 2.en mailako jubenilak, kadeteak eta infantilak. Babesleak zeintzuk diren ere emango da jakitera. Aurkezpena goizeko 11,30etan egingo da Gure Ametsa jatetxean. Aurrez, goizeko 10,30etan, Dorletako Santutegian Ama Birginari lora eskaintza egingo zaio. Aurkezpenaz bukatzeko luntxa egongo da gerturatzen diren guztientzat.


Joseba 9. postuan Algarveko krossean

Otsailaren 9an, Portugaleko Algarveko 5.000 metroko kross internazionalen parte hartu zuen Joseba Larrinagak. Atlantako joku paralinpikoetan parte hartutako atletak izan genituen proba honetan, 100 bat guztira. Horien artean Josebak 9. postuan bukatu zuen. Bere kategorian barruan berriz, 3.ena izan zen. Joseba pozik azaldu da Algarven lortutako emaitzaz, iaztik bere postua hobetzea lortu bait du. Iaz 12. postuan bukatu zuen eta aurtan 9.ean.

ENBOR
Eloy Borgas Iglesias
 • Sukalde muntatzailea
 • Aroztegia orokorrean
 Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
 Tfno-Faxa: 79 02 51

PIEZOSUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
 Laborantza tresnak
 Ongarriak- Haziak
 Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

 **Zenbaki**
Aholkularitza

Izozkiteki-Gozotegia
IZOZKITEGI
 Otalora, 11
 Tfnoa: 79 93 58
 ARETXABAleta


Ezkatu
TABERNA
 Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
 Tfnoak: 79 88 75
 79 75 99


MAPFRE
 Aseguroak
 Errekararren, 3
 Tfnoa: 77 11 76



Arlutz xake elkarteak

“Zaila da xakeari gustoa hartzea gutxitan jolastuta”

Xakea aspergarria eta jakintsuen jokua dela dio jendeak. Baina Arlutz xake taldekoek ez dute hori pentsatzen. “Jendeak ez du xakea ezagutzen, xakea beste kirol batzuk moduan dibertigarria da, konpetitiboa”.

Arlutz xake taldekoek xakearen mundura gehiago gerturatu gaituzte.

Momentu honetan Gipuzkoako liga jokatzen ari dira eta aurreneko postuetan daude.

Momentu honetan Gipuzkoako liga jokatzen ari zarete. Zer asmo dituzue?

Aitor Alcaide: Preferente taldean gaude eta dagoeneko lau ihardunaldi jokatu ditugu. Aurreneko postuetan gaude eta Liga Vascara igotzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

• **Nola bizi duzue xakea?**

Andoni Migel: Afizio moduan bizi dugu xakea, beste afizio batzuen artean bat gehiago da.

• **Oso jende gutxi jolasten du xakean. zergaitik izan daiteke hori?**

Joseba Altube: Egia esan, ez da horren jende gutxi. Maila federatu batean dabilzanak gutxi dira baina gure moduan afizioz dabilzanak ez dira horren gutxi. Hori bai, oso emakume gutxi jolasten



“Elkarren artean jokatuz entrenatzen dugu”

du xakean, %10 bat izango dira emakumeak.

• **Jende askok aspergarria eta intelgentee-na dela esaten du.**

Fran Migel: Jendeak jakin barik berba egiten du. Ikustea jolastea baino aspergarriagoa da baina jolasterakoan beste kirol batzutan moduan, eraso-defentsa estrategia dago eta xakean jolastea dibertigarria da. Bi aurkarien arteko maila antzerakoa bada hobe da.

Egia esan, zaila da xakeari gustoa hartzea gutxitan jolastuta. Xakean hasterakoan garrantzitsua da dakien norbait aldamenen izatea.

• **Aurkezpenean kirola dela ere aipatu da. Ze iritzi duzue?**

Aitor: Denbora baten barruan aurkakoa garaitu behar duzula eta badu kirol kutsu bat baina nire ustez ezin da kirola kontsideratu.

• **Zer lantzen da xa-**

kean?

Aitor: Imaginazioa, kontzentrazioa, pazientzia, kalkulatzeko gaitasuna eta espazioaren banaketa deitzen zaiona. Hau da, jokua, jokaldi batzuk egin ostean nola antolatuko den ikustea.

• **Matematikaz eta musikaz ere erlazionatu izan da. Zuein ustez badago loturarik?**

Aitor: Ez dakit, batzuk baietz esaten dute. Badaude historiako jokalariek oso matematiko onak izan zirenak eta baita musikoak ere. Liburu bat ere badago “Xakea eta matematikak” izenburua duena eta horrenbeste kasualitate badaude loturarik izango duelako izango da agian.

• **Azken urteotan zein aldaketa egon dira xakean?**

Esteban Romero: Estatuan azken urteotan jokalariek onak irten dira, maila ona erakutsi dute-

nak. Eskoletan ere asignatura moduan sartzen hasi da eta komunikabideetan ere gero eta oihartzun haundiagoa du, hala eta ere oraindik ez da oso haundia.

• **Euskal Herriari dagokionez, zelan ikusten duzue xakea?**

Inguruan Eibarrek eta gure daukagu federatutako taldea eta besteak Donostialdeko taldeak dira, Lasarte, Errenteria, Irun...

Hiri haundietan daude taldeak batez ere. Horregatik, gurea moduko herri txiki batean talde bat egotea nahiko arraroa da.

• **Nola entrenatzen duzue xakean?**

Astean pare bat aldiz edo elkartzen gara eta gure artean jokatzen dugu. Xake bizkorreko partidak egiten ditugu normalean, bakoitzak bost minutu ditu jokatzeke.

• **Herrian xakea bultzatzeko pentsatu duzue zerbait?**

Portasoleko jaietan eta Euskararen egunean antolatatu izan ditugu xake partidak. Orain urte batzuk xake txapelketa bat antolatu genuen eta inguruko xake jokalariek ekarri genituen. Udaletxeak dirulaguntza txikia eman zigun eta nahiko lotsagarri gelditu ginen. Txapelketa gehiago antolatzea gustatuko litzaiguke baina udaletxeak ematen digun dirulaguntza oso urria da.



“Baserriko lana gustoko dut, baina ordu gehiegi sartu behar dira”

Arientzako auzo alkatea dugu Julen Abasolo. Orain bi urte auzotarrek aukuratu zuten kargu horretarako. “Arazoren bat dagoenean biltzen gara auzo alkateok eta baserrietako zinegotzia”. Baserritarra dugu. Arientza-Etxebarri baserrikoa.

• **Nola aukeratzen da auzo-alkatea?**

Arientzako kasuan 34 lagun gaude botua eman eta hartu dezakegunak, hau da 18 urtetik gorako edozein izan daiteke hautatua. Azkenengo kasuan nik jaso nuen botu kopururik haundiena.

• **Zein eginbehar du auzo-alkate**

batek?

Auzoko arazoak, jaietako antolakuntza... Azken finean auzoaren ordezkaria da.

• **Arientzako bidea egoera txarrean dago. Konpontzeko erabakirik hartu da?**

Bidea Diputazioarena dela uste dut. Bidearen egoera txarraz askotan ketatu gara baina oraindik bere horretan jarraitzen du.

• **Udaletxeaz eta beste auzo-alkateekin izaten duzue harremanik?**

Hiruhilabetetik behin edo elkartzeko gara herriko auzo-alkateok baserritarren zinegotziarekin. Normalean arazoren bat dagoenean.

• **Zein da zure lanbidea?**

Baserritarra naiz.

• **Hori da zuk amestutako lanbidea?**

Oingoaren antzekoa, gustoko dut nire lana.

• **Baserriko zein arlotara dedikatzen zara?**

Esne behietara.

• **Zenbat behi dituzue?**

180 abere-buru ditugu eta horietatik 90 behiak.

• **Nola ikusten duzu baserritarren**

etorkizuna?

Nahiko ondo, baina hori bai, politikoki aurrerapen batzuk sartu behar dira, makinaria...

• **Gustoko janari bat?**

Menestra.

• **Edari bat?**

Sagardaua.

• **Gaztetan neskekin asko ligan zenuen ?**

Gutxi.

• **Beste seme-alabarik ekartzeko asmorik bai?**

Orain neskatila bat daukat, eta gustatuko litzaidake gehiago izatea.

• **Nora bidaiatzea gustatuko litzazuke?**

Kanadara.

• **Euskal Herriko leku polit bat?**

Degurixa.

• **San Balentin egunean jaso duzu edo egin duzu oparirik?**

Ez, ez daukat ohiturarik.

• **Diru asko izanez gero zer egingo zenuke?**

Seguruenik nire lanean inbertituko nuke. Nire lana oso gustoko daukat baina denbora asko eramaten du. Horregatik, zerbait egingo nuke ordu gehiago libre eukitzeko.



Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskera elkartea



944. urteko "Anuario Vascongado" liburuan gure herrian egon zen Rolba S.A. zapata lantegiaren publizitate hau agertzen da.

Rolba S.A. zapata fabrika 1921. urte inguruan sortu zuen Romualdo Leanizbarrutia Zuazua apotzarrak. 1944. urtean, bere heriotzaren ostean, bere semeek hartu zuten lantegiaren ardura, 1966. urtean itxi zen arte.

Romualdo gizon bizia eta sortzailea zen. Tela, janari denda eta taberna, hau da, herriko denda-taberna-banku kontsidera daitekeen horietako baten arduraduna zen. Horrez gain, yute eta lonazko alpargatak egiten zituen, baina hauek azkar apurtzen zirenez, zola gomazkoa jartzea asmatu zuen (errueden llantak erabiliz), puntan larrua jarritz.

Lehenengo Gerra Mundialaren ostean aurrez aipatutako enpresa sortu zuen, Durana 18ko Jausoro (Romaldueña) etxearenak ziren atzeko ortuetan. Nabe bakarra zuen lantegiak, monjetaraino luzatzen zena.

Argazkia, 1952. urtean Luis Leanizbarrutia (Romualdoren semea) eta Ines Bizkarralegorra ezkondu zirela eta, lantegiko langileei emandako bazkari batean atera zen. Toki onan egin zen bazkaria.

Goiko iladan ezkerretik hasita: **Gregorio (Elorriokoa), Eladio Arenaza (Atxurdirin), Juli Azkarretazabal, Cresen Bengoa, Ceferino Agiriano, Maritxu Iturricastillo, Franciska Alzola, Felis Armentia, Duni Zuazabeitia, Lucio Herran, Eulali Zuazabeitia, Consuelo.**

Erdiko iladan: **Agustina San Migel, Isidoro Gallego, Marina Romero, Marilu Urrutia, Jose mari Berasaluze.**

Behean: **Jose Mari (Eskoriatzakoa), Poli Herran, Paulo Garciaetxabe, Poloni Garciaetxabe, Ascension Armentia, Sinesio Diez, Jesusa Garai, Rosario Arkauz, Dominika Garmendia, Maria Josefa Garciaetxabe, Faustino Larrañaga, Agustina Castro. Hauen atzean: Fermina Gabilondo, Mari Tere Antxia. Lurrean eserita: Manolo Etxebarrieta.**



Hasiera baten, azpikaldean untzak zituzten larruzko botak egiten hasi zen, "brocegies" deitzen zitzairen eta mendira joateko erabiltzen ziren ez baiziren labantzen. Botas Navarras ere deitzen zitzairen, itxura denez Nafarroan erabiltzen baiziren.

Gerra Zibila dela eta 1936-39ra bitartean militarizatuta egon zen lantegia. Ejerzitoarendako zapatak egiten ziren. Orduko jorrala kontutan hartzeko modukoa zen, gerra ostean eguneko jorrala lau pezetakoa zen eta. Kantitate handia ordurako.

Sandaliak egiten ere hasi ziren laster, ume naiz gizonetzkoenak. "Crepe"zko zolarekin egindakoak ziren, Indiatik estainozko latetan ekartzen ziren goma mota batekin.

Jarraian, "Blucher" zapaten fabrikazioa etorri zen, gizonetzkoendako, emakumezkoendako eta umeendako, lotzeko zapatena hain zuzen ere.

Babesdun botak ere fabrikatu ziren bertan. Puntan burdina zuten hauek, eta lantegietan hanketako istripuak ez gertatzeko erabiltzen ziren. 1950eko bukaeraldera mokasinen (kiowas) moda etorri zen. Rolba S. A. izan zen zapata mota hauek produzitu zituen lehenetarikoa.

Langileen plantilan baziren hiru patroigile, modeluen eta adornuen diseinua egiten zutenak, rebajadoreak, jostunak...

Penintsula mailan entzute haundiko enpresa zen, 70 bat langile zituen eta egunero 750 bat pare zapata produzitzen ziren. Espainia mailan 48 bat ordezkari, zapatak saltzen ibili zituen. Kanpotarren esanetan oso ondo lan egiteaz gain, erabiltzen zen materiala ere kalitate haundikoa zen.

Romaldueña



Liburua: **Carlos Bengoak** utzitakoa

Argazkia: **Dunixe Zuazabeitia** utzitakoa

Informazioa: **Pili Leanizbarrutia, Ines Bizkarralegorra, Dunixe Zuazabeitia**

Zerua burura jausi



Asterix eta Obelisen Galiako herkideak gauza bakar baten beldur ziren, zerua beraien buru gainera jausiko zen beldur hain zuzen ere.

Aratuste domekan Aretxabaletan egon balira momentu hori heldu zela pentsatuko zuketene, nik behintzat ohean erdi lo nengoela antzerako zerbait pentsatu nuen kaleko eztaundak entzunda.

Danoi gustatzen zaigu juerga eta parranda baina goizeko 5etan etxafleruak edozein lekutan eta geratu barik botatzea gehiegi da, are gehiago, eguna ondo ospatzeko, herritarren borondatera jotzen denean diru bila. Ea hurrengo urteetako **Santa Ageda mutilek** energiak kantatzen eta dantzatzen erabiltzen dituzten.

Aratusteekin jarraituz eta alderdi onera pasatuz, jende dexente mozorrotu eta giro ederra egon zela aipatu behar da. Txapelketako sariak honela geratu ziren: irabazlea, "**Curro**" **Etxebarria** eta **Fernando Oxinaga** izan ziren, hemendik aurrera badakigu "Curro" non aurkitu.

Bigarren saria **bilarreko bolak**, tako eta guzti irabazi zuten. Epaimahaikoei "pelotie" egiteagatik ziurrenik. Hirugarren saria barraketatik alde egindako **zaldiek** lortu zuten eta laugarrena **Mari Karmen Agirrek**, ijitana mozorroaz jaso zuen.

Gazteen kategorian, azken egunetako beroekin zoratu diren **behi** batzuk jaso zuten lehenengo saria; 2.a **Lagun waro** mediku berezi batzuk; 3.a nola halako **kotxe garbitzaileek**. Ederra utzi zidaten kotxea! Eta gainera ordaindu egin behar! Sufrituenak, laugarren saria eskuratu zuten **maruja** taldekoak ziren.

Martizenean jaiek bukaera espektakularra izan zuten. **Jurgi Etxebarriak** fakir eran piztu zuen txinoa. Edozeinek eskatzen dio sua!

Sari kontuekin jarraituz, Udalak iazko "Aretxabaleta sariak" banatu ditu eta saridunak bost izan dira: **Joseba Larrinaga, UDA, Felix eta Alberto Iñurrategi eta nagusien eta gaztetxoek akordeoi orkestrak**. Bost sarietatik hiru kiroletakoak. Ez dakit ez ote diogun garrantzi gehiegi ematen kirolari.

Bukatzeke Aretxagazetak bere zuzendaritza batzordea aldatu zuen "San Valentin" egunean egin zen batzar orokorrean. Irten direnak: **Josu Urkia, Arantzazu Abasolo, Imanol Aginagalde eta Miren Eraña** dira. Sartu direnak, berriz, **Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre eta Alberto Elkorobarrutia**. Zorte ona opa diegu euren eginkizun berrian.

Niretako antza danez, ez dute ordezkaririk topatu.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.
- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauez. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

ETXEBIZITZA


- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.
- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.
- Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

DENETARIK

- Urrezko kataia bat aurkitu zen abenduan. Deitu 79 01 05 telefonora.
- Opel Ascona markako kotxea salgai. Ate bikoa, egoera onean eta prezio ekonomikoan. Tfnoa: 79 43 05.

- Lur hiztegi entziklopedikoa salgai dago, estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu 1etara, arratsaldez 4etatik 9etara).

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



SLEEPERS

EEBB 1996


AKTOREAK: Kevin Bacon (Nokes), Robert de Niro (Bobby), Dustin Hoffman (Sinder), Jason Patric (Shakes), Brad Pitt (Michael), Minnie Driver (Carol), Vittorio Gassman (King Benny), Billy Crudup (Tommy).

ZUZENDARIA: Barry Levinson.

del txistu a la telecaster

CRÓNICA
DEL ROCK VASCO

Elena López Aguirre



Del txistu a la telecaster: Crónica del rock vasco

Idazlea:

Elena López Aguirre

Argitaletxea:

AIANAI, 1996

Barry Levinson "Sleepers" filmeko zuzendariak hiru belaunaldietako aktore disdiratsuenak bildu ditu, Lorenzo Carcaterra idazle italamerikarraren nobela pantailaratzean. Robert de Niro eta Dustin Joffman pelikula berean batera ikus ditzakegu eta honekin batera Vittorio Gassman eta Brad Pitt ospetsua bildu ditu.

60. hamarkadan mafiak eta elizak erdibana kontrolatzen duten New Yorkeko auzo batetan lau gazte bizi dira: Michael (Brad Pitt), John (Geoffrey Wigeler), Tommy (Jonathan Tucker) eta gertatutakoaren berri kontatzen duena: Shakes (Joe Perrino). Mafiosoen artean, King Benny (Vittorio Gassman) dugu, jatetxe baten ugazaba. Elizgizonen artean osterak, Bobby (Robert de Niro), lau gazteak bide zuzenetik eramaten saiatzen dena.

Patuak, lau gazteak erreformatorio batean urtebete luze pasatzera bultzatuko ditu eta han bizitzaren alde gogorra eta beltzena ezagutuko dute.

Levinsonek bidaltzen digun mezua eztabaidagarria den arren pelikula sendoa eta ikusgarria burutu du.

Z A R A I A Z I N E M A

Otsailak 21, 22, 23 24

SLEEPERS

Otsailak 23, domeka (Umeentzat)

FLIPPER

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: Setan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Liburu honetan, izenburuan argi esaten denez, Euskalerriko rock-aren kronika bat egiten digu "Potato" taldeko gitarra jole ohiak eta kazetaria den Elena López-ek. Liburu hau ateratzeko dokumentazio lan handia egin du, euskal musika prentsatik datu pilo bat jasoz eta bere esperientzia pertsonalarekin aberastuz.

60. hamarkadako talde ezezagunekin hasi eta gaur egungo azken taldeetaraino iristen den kronika honek taldeez gain, musika aldizkariak, irratiak, argitaletxeak eta beste gai asko ere jorratzen ditu.

Euskal rockaren historia ezagutzeaz gain, oroitzapen ugari ere ekarriko dio askori gogora liburu entretenigarri honek. Azken aldera musika taldeen zerrenda bat ere ageri da eta zenbait kanturen letrak ere bai.

Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Bedarreta
taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tfnoa: 79 91 84
Aretxabaleta

IRIARTE

**Umeen
denda**



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

OTSAILA

22

zapatua

**DORLETAKO AMA
TXIRRINDULARI
ESKOLAREN AURKEZPENA**

1997ko denboraldirako taldeetako partaideen izenak jakitera emango dira goizeko 11,30etan Gure Ametsa jatetxean.

ANTZERKIA

Ttantaka taldearen **EL FLORIDO PENSIL** antzezlan.

Arrasateko Amaia antzokian gaueko 10,30etan. Sarrera 1000 pezeta, gazte txartelarekin 800 pta.

ANTZERKIA

Ttantaka taldearen **EL FLORIDO PENSIL** antzezlan.

Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Sarrera 1000 pezeta, gazte txartelarekin 800 pta.

**FUTBOLA
PREFERENTE**

Aretxabaleta-Ordizia.

**FUTBOLA
LEHENENGO ERREGIONALA**

Antoniano-Aretxabaleta

27

eguna

ZINEA

EL GLOBO BLANCO. Arrasateko Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

MARTXOA

zapatua

**BASOTXOKO PATROIAREN
EGUNA**

Bazkaria egingo dute Taberna Berrin jubilatuek.



2 domeka

MENDI IRTEERA

Zaraia M. Taldeak Gipuzkoako itzulia.
Zarautz-Deba.

17 astelehena

KORRIKA pasatuko da

Aretxabaletatik. Arratsaldeko 5ak
inguruan Arrasatetik helduko da.



ESKIATZERA IRTEERA

Murrukixo M. E.ak eskiatzera irteera antolatu du martxoaren 8 eta 9rako. Luz Ardidenera izango da eta prezioa bazkideentzat 9.500 pezetakoa da, gainontze-koentzat 10.000koa. Segurua 500 pezeta, eskien alokairua, 1.000. Izenematea Murrukixoko lokalean egin daiteke martizenetan 7,30etatik aurrera.

ikastaroak

ARGIZTAPEN IKASTAROA

Bergarako Islada Bideo Tailerrak argiztapen ikastaroa antolatu du martxoaren 3tik 14ra. Ikastaroa 40 ordutakoa izango da eta arratsaldeko 5etatik 9etara. Begien eta kamararen arteko desberdintasunak, argi kantitatea, argiaren kalitatea eta tratamendua, foko mota desberdinak, kamarendako filtroak... ikusiko da. Matrikula 15.000 pezeta. Emaleak: Xabi Lozano, Iñaki Irastorza, Koldo Remiro eta Txema Areizaga. Informazio gehiago edo eta apuntatzeko, Bergarako kultur etxean, 77 91 58 telefonoan.

MENDI SOROSPEN IKASTAROA

Euskal Mendizale Elkarteak eta Leintz Bailarako mendi elkarteek antolatuta, mendi sorospen eta mendikuntza ikastaroa egingo da apirilean zehar Monterronen. Ikastaroa, apirilaren 7, 9, 14, 16, 21, 23, 24, 28 eta 29an burutuko da arratsaldeko 7,30etatik 9,30ak arte. Gaiak: mendiko segurtasuna, hidratazioa, jantziak... dira. Izen ematea Murrukixoko lokalean egin daiteke martizenetan 7,30etatik aurrera. Prezioa, federatuak 3.000 pezeta, ez federatuak 4.000.


**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarteak	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa
leku

centro
hogar
MUEBLES



a, eme... interiores



Estilo
guztietako altzariak
aurkituko dituzu
gure dendetan.
Zatoz, eta zuk
aukeratu!!

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 77 14 92